

Goierriko ikasleak GEPeko barne txapelketan garaile, saski baloian

2017/01/31

Gaur eguardian GEPeko saskibaloia finala jokatu da Iturripeko instalakuntzetan. Goierriko etorritako ikasleak 81-50eko emaitzarekin garaipena lortu dute, Arrasatekoen kontra.

Aurreko hilabeteetan zehar Goierriko eta Arrasateko kanpusetan jokatu diren txapelketetako irabazleak izan dira gaurko finalean parte hartu dutenak.

Txapelketaren hurrengo fasea otsailak 15an izango da, Arrasaten ospatuko den fakultateen arteko MONDRAGON UNIBERTSITATEko txapelketa alegia. Beraz, txapelketa honetan GEPeko saskibaloia ordezkariak Goierriko ikasleak izango dira.

MONDRAGON UNIBERTSITATEko txapelketa irabazten duena zuzenean Euskadikoetara joateko sailkatuko da. Bertan, EHU/UPV eta Deustoren aurka lehiatu beharko da.



GEPeko saski baloi finalistak

